

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko borondatezko epea jendaurrean jartzea. 2019. urtea

Nik, Nekane Garaigordobil Bengoak, Legutioko (Araba) Udaleko alkatea naizen honek, hau Jakitera ematen dut: 2019ko martxoaren 14tik maiatzaren 14ra arteko (biak barne) egun baliodunetan ordaindu ahal izango dira, borondatezko epean, hauei dagozkien ordainagiriak:

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga - 2019. Urtea.

Ordaintzeko tokia eta modua.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Ordaintzeko tokiak:

- Kutxabanken bulegoetan.
- “Interneten bidez, Legutioko Udalaren web orrian: www.legutio.eus (Nire ordainketa)”
- Udalaren bulegoetan, kreditu txartelarekin.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Legutioko Udalak kudeatuko du, zuzenean, ordainketa helbideratu den finantza entitateetako kontuetako zordunketa, 2019ko maiatzaren 14an.

Zergadunei ohartarazten zaie ordainketa banku edo aurrezki kutxa konfederatuetan helbideratu ahal izango dutela.

Premiamendu aldia.

Ordaintzeko adierazi den epea bukatutakoan, ordaindu ez dutenei kuotak premiamenduko prozeduraz kobratuko zaizkie, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak ezartzen duen errekaruarekin.

Guztiak jakin dezaten eta dagozkion ondorioetarako argitaratzen da.

Legutio, 2019ko apirilaren 1a

Alkatea

NEKANE GARAIGORDOBIL BENGOA